

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu (espediente zk.ak: 2018/S596/59, 60 eta 61)

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesdunak: Alexandru Botiz, Ahmed Mohamed Embarek eta Cristobal Ignacio Quezada González.

Interesdunek orain duten helbidea ezezaguna denez gero, ezin izan zaie jakinarazi erabaki hau; beraz, urriaren 1eko 30/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 44. artikuluan ezartzen duena betez, EAOn iragarki hau argitaratuz (aukerakoa izanik, aldezturik ALHAOn eta udal iragarki taulan argitaratu da) jakinarazten zaie alkatearen 2018/344 ebazpena. Hona hemen hitzez hitz:

“Errolda Kontseiluak 2008ko ekainaren 27ko bilkuran emandako jarraibideak kontuan hartuta, egiaztatu behar da ea Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) bidalitako argibideen arabera bi urterik behin errolda inskripzioa berritu beharrik ez duten atzeritarrek (NO_ENCSARP) dena delako etxean bizi izaten jarraitzen duten. Egiaztapen horiek ez dira egingo baizik eta mugimendurik izan ez denean bost edo bi urtean, Atzeritarren Erregistro Nagusian inskribatuta dauden edo ez, horren arabera.

Bertan bizi diren egiaztatzeko dagokion jakinarazpena bidali ondoren, ez da egon modurik pertsona hauekin harremanetan jartzeko:

	IZENA ETA ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS	DOKUMENTUA DOCUMENTO	HELBIDEA DOMICILIO	Nº DE EXPEDIENTE ESPEDIENTEAREN ZK.
1	ALEXANDRU BOTIZ	X-08716978-R	Mendiko, 26 – 1. E	2018/S596/59
2	AHMED MOHAMED EMBAREK	X-06183947-Y	Lezama, 1	2018/S596/60
3	CRISTOBAL IGNACIO QUEZADA GONZALEZ	Y-02869051-E	Baranbio, 64	2018/S596/61

Udaltzainek egindako txostena ikusita, pertsona horiek aipatutako etxean ez direla bizi ondorioztatzen da. Beraz, ofizioz dagokion espedientei hasiera emango zaie biztanleen udal erroldan baja emateko, ez baitira aipatutako etxean bizi. Hortaz, ez dituzte betetzen Biztanle eta Lurralde Mugei buruzko Arautegiaren 54. eta 68. artikuluetan xedatutakoak. Arautegi hori uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zen.

Bat etorri arautegi horren 72. artikuluan eta Estatistika Institutuko lehendakariak eta Eskumenak autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak, biek batera, 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinen bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatu eta berrikustearren gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta, bat etorri, orobat, aplikazio bidezko eta orokorra dagokion gainerako legediarekin, alkatetza honek, legezturik dituen ahalmenez baliatuz, XEDATZEN DU:

Lehenengoa. Izapidetzeko onartzea eta ofizioz espedienteak irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko ondoren zehazten diren pertsonen, arauz kanpo erroldatuta baitaude:

	IZENA ETA ABIZENAK NOMBRE Y APELLIDOS	DOKUMENTUA DOCUMENTO	HELBIDEA DOMICILIO	Nº DE EXPEDIENTE EXPEDIENTEAREN ZKIA.
1	ALEXANDRU BOTIZ	X-08716978-R	C/ Mendiko nº 26 – 1º E	2018/S596/59
2	AHMED MOHAMED EMBAREK	X-06183947-Y	Lezama nº 1	2018/S596/60
3	CRISTOBAL IGNACIO QUEZADA GONZALEZ	Y-02869051-E	Baranbio nº 64	2018/S596/61

Bigarrena. Interesdunei udalerri honetan izan duten azken helbide ezagunean ebazpen hau jakinaraztea, hamabost egun igaro baino lehen egoki jotzen dituzten alegazioak, agiriak eta frogagiriak aurkez ditzaten, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta daudela egiaztatzeko, edo errolda egoera erregulariza dezaten. Horretarako, bizilekuz aldatu direla edo gaur egun duten bizilekua zein udalerritan dagoen jakinarazi beharko diote udal honi.

Alkateak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2018ko azaroaren 7a, asteazkena. Fede ematen dut nik, idazkariak. Alkatearen eta idazkariaren izenpe eta errubrika elektronikoak.

Jakin dezazuen eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizuet.”

Amurrio, 2018ko abenduaren 5a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA